

IRUÑEKO UDALA

ABIAN JARTZEA ETA JARRAIPENA

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

AGIRIAREN EGILEA:

Arbuniés y Lekunberri ASOCIADOS

2025eko abendua

Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak gauzaturiko zuzendaritza eta gainbegiratze instituzionala.

Idazketa eta partaidetza-prozesua Arbuniés y Lekunberri Asociados SL sozietatearen ardura izan da.

Hauen partaidetza izan du: herritarrak, kolektiboak, ikastetxeak, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako profesionalak, udal langileak eta beste erakunde publiko batzuetako langileak.

Dokumentu hau Europar Batasunaren LIFE programak kofinantzatutako LIFE PLAN4CET proiektuaren esparruan egin da. Dokumentu honen edukia egileen erantzukizun esklusiboa da, eta ez da inolaz ere ulertu behar Europako Batzordearen iritzia islatzen duenik.

AURKIBIDEA

Iruñeko Udala 1

Dokumentuan baliatutako akronimoak eta laburdurak 4

1. ATALA 5

SARRERA 5

1. Aurkezpena 6

2. Nola egin zen? 7

Abian jartzeko eta jarraipena egiteko 7

Abian jartzea eta jarraipena 7

2. ATALA 8

ABIAN JARTZEKO ORIENTABIDEAK 8

3. Gobernantza-eredua 9

Eredua 9

Egitura eta erabakiak hartzea 9

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren eginkizunak 10

4. Abian jartzeko lehen urratsak 12

Ekintzak lehenestea 12

Ekintzak denboran zehar 13

Planaren denboralizazioa eta indarraldia 13

5. Lan-egutegia 14

6. JIHPEaren komunikazioa 25

Helburuak 25

Gako estrategikoak 25

Lan-faseak 25

Gutxi gorabeherako egutegia 27

3. ATALA 28

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA 28

7. Jarraipen- eta ebaluazio-eredua 29

8. Jarraipena 30

9. Emaitzen ebaluazioa 31

Balio-irizpideak 31

Emaitzen adierazleak 31

10. Prozesuaren ebaluazioa 35


Prozesuaren adierazleak 35

Ebaluazio-mekanismoak 38

DOKUMENTUAN BALIATUTAKO AKRONIMOAK ETA LABURDURAK

- ANFAS. Adimen-desgaitasuna edo garapenaren nahasmendua duten pertsonen eta haien familien aldeko Nafarroako elkartea.
- APYMA. Gurasoen elkartea.
- HAI2030. Iruñeko Hiri Agenda 2030.
- Ud. Udalak.
- CEA. Gasteizko Ingurumen Azterlanen Zentroa.
- CENEAM. Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionala.
- HLHI. Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea.
- II. Ikastetxe Integratua edo Lanbide Heziketakoa.
- CO_2. Karbono Dioxidoa.
- EHAEO. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala.
- LHI. Lehen Hezkuntzako Ikastetxea/Eskola Publikoa.
- H. Hezkuntza.
- IH. Ingurumen Hezkuntza.
- JIH. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza.
- JIHNE. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategia.
- NGB. Naturagune Babestuak.
- DBH. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- ETKAE2030. Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Iruñeko Estrategia 2030.
- NUKF. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- LH. Lanbide Heziketa.
- BHI. Bigarren Hezkuntzako Institutua.
- LBEAE. Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuria.
- I. Ingurumena.
- IM. Iruñerriko Mankomunitatea.
- ED/EE. Ez daki/Ez du erantzun.
- BLB. Birgaitzean Laguntzeko Bulegoa.
- GJH. Garapen Jasangarrirako Helburuak.
- ONCE. Lankidetzarako eta Desgaitasuna duten Pertsonen Gizarteratzerako ONCE Fundazioa.
- GKE. Gobernuz Kanpoko Erakundeak.
- EKB. Eraldaketa Komunitariorako Bulegoak.
- JIHEP. Espainiako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Plana.
- JIHPE. Iruñeko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa.
- SEEP: Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana.
- UGESP. Udalaz Gaindiko Eraginpeko Sektore Plana.
- IHP. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua.
- PBHS. Pirinioak Bizirik Hezkuntza Sarea.
- SS. Sare Sozialak.
- DJHS. Drainatze Jasangarriko Hiri Sistemak.
- AHT. Abiadura Handiko Trena.
- NUP. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- UNAV. Nafarroako Unibertsitatea.

1. ATALA SARRERA



1. AURKEZPENA

Iruñeko Udaleko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa (JIHPE) abian jartzeak urrats garrantzitsu bat egitea dakar hiri kontzienteago, parte-hartzaileago eta inguruarekiko konprometituago baterantz aurrera egiteko. Baina bide hori benetakoa eta eraginkorra izateko, ez da nahikoa ekintza-lerroak zehaztearekin. Funtsezkoa da prozesuan laguntzea, lorpenen jarraipena egitea eta beharrezkoa denean norabidea aldatzea ahalbidetuko duten tresnak edukitzea. Hain zuzen ere, dokumentu honek premia horri erantzuten dio, Plana aktibatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko gida praktiko bat eskaintzen baitu.

Jarraipena eta ebaluazioa funtsezko piezak dira JIHPEak nola aurrera egiten duen ulertzeko. Horiei esker, ekintza bakoitzari eta haren egoerari buruzko begirada hurbil eta zehatza izan dezakegu, eta aukera emango digu identifikatzeko zerk funtzionatzen duen, zer hobetu daitekeen eta bidean zer ikaskuntza eraikitzen diren (jarraipena), JIHtik hirian sortzen ari diren emaitzen ikuspegi osoarekin konbinatuz (ebaluazioa). Kontrol-ariketa bat baino gehiago, ikasteko, hobetzeko eta erabaki informatuagoak hartzeko aukera bat da.

Dokumentua hiru zatitan antolatuta dago, Planaren garapena laguntzeko:

- Lehenengo zatian **testuinguruaren berri ematen** da, dokumentua aurkezten da, eta abian jartzeko eta jarraipena egiteko dokumentua idazteko prozesua nolakoa izan den azaltzen da.
- Bigarren zatian,**Plana abian jartzeko** modua aztertzen da. Zati honetan, gobernantza-eredua definitzen da, hau da, lana nola antolatzen den, erabakiak nork hartzen dituen eta Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren zeregina zein den. JIHPEa aktibatzeko lehen urratsak ere zehazten dira, lehentasunezko ekintzak, egutegia eta horiek garatzeko denbora-esparrua barne, eta, gainera, lana antolatzea errazten duen plangintza-proposamena ere jasotzen da.
- Hirugarren zatia **jarraipenari eta ebaluazioari** buruzkoa da. Atal horretan, ekintzak garatzen diren modua eta lortutako emaitzen balorazioa uztartzen dituen eredu bat proposatzen da. Adierazle, irizpide eta tresna zehatzak biltzen dira, jarraipen etengabea eta zorrotza egitea ahalbidetzen dutenak, JIHPEa bizirik mantentzen dela, eboluzionatzen duela eta hiriaren premiei erantzuten diela ziurtatzeko. Atal hau jarraipen-taula batekin osatzen da.

Oro har, dokumentu honek tresna erabilgarria, argia eta hurbilekoa izan nahi du, JIHPEari ibilbidean lagunduko diona eta benetako aldaketak sortzen lagunduko duena. Jasangarritasunerantz aurrera egitea ez baita helburu bat bakarrik, prozesu partekatua baizik, urratsez urrats eraikitzen dena, etengabe ikasiz eta hobetuz.

2. NOLA EGIN ZEN?

Abian jartzeko eta jarraipena egiteko Abian jartzea eta jarraipena

Plan estrategiko berriaren lehenengo urratsak nola eman ikusi dugu, eta lanaren emaitza aurkeztu dugu.

Emaitza:

JIHPEaren dokumentua, 2032ra begira

JIHPEaren azken dokumentu hori egiteko, arreta berezia jarri da Iruñeko Udaleko IHko Zerbitzuaren eskakizunetan eta ohiko funtzionamenduan.

1. **ABIAN JARTZEKO ORIENTABIDEEN DISEINUA**. JIHPEa praktikan jartzeko urratsak erraztuko dituen dokumentua egitea.
   - Gobernantza-ereduaren oinarrizko proposamena.
   - Hautaketa-irizpideak definitzea eta ekintzak lehenestea.
   - IHko Zerbitzuarekin ekintzak LEHENESTEA, eta 6 urterako Plana abian jartzeko lan-egutegia zehaztea.
   - JIHPErako komunikazio-proposamena.

2. **JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMAREN DISEINUA**
   - Jarraipena egiteko eta tresnak diseinatzeko itemak definitzea.
   - JIHPEaren aplikazioaren prozesua eta emaitzak ebaluatzeko balio-irizpideak, adierazleak eta tresnak aukeratzea.


3. **BITARTEKO BILERAK IHko taldearekin**, egindako lana kontrastatzeko eta baliozkotzeko ez ezik, hobekuntza-proposamenak biltzeko eta JIHPEa aplikatzeko egutegi bat ezartzeko ere bai. Aldizkako 6 bilera egin dira.

4. **AMAIERAKO DOKUMENTUA**, aurreko atal guztiak jasotzen dituena.

5. **EMAITZAK AURKEZTEKO AZKEN BILERA**, azken lana berrikusteko eta baliozkotzeko.

2. ATALA

ABIAN JARTZEKO ORIENTABIDEAK



3. GOBERNANTZA-EREDUA

Eredua

JIHPEa eta bere gobernantza-eredua partaidetzazko, maila anitzeko eta zeharkako ikuspegi batean oinarritzen dira, eraginkortasuna, zilegitasuna eta denboran irautea bermatzera bideratuta. Eredu horrek udaleko talde tekniko eta politikoen, hezkuntza-komunitatearen, herritarren eta kolektiboen inplikazio koordinatua egituratzen du, genero- eta dibertsitate-ikuspegia gogoan hartuta, ekitatearen eta intersekzionalitatearen zeharkako ardatz gisa.

Hiru oinarrizko irizpide ditu:

- Zeharkakotasuna oinarrizko printzipio eragilea da, eta JIHa udal-politika eta -arlo guztietan sartzen dela ziurtatzen du.
- Herritarren parte-hartzea, erabaki- eta kosorkuntza-mekanismotzat hartzea.
- Gardentasuna eta kontu-ematea, jarraipenerako, ebaluaziorako eta etengabeko hobekuntzarako bermeak izanen dira.

Esparru horretan, arlo eskuduneko talde tekniko eta politikoaren ikuspegi estrategikoa erabakigarria da JIHPEa udal-plangintzarekin eta 2030 Agendatik eratorritako konpromisoekin koherentea izateko, eta, hala, JIHa politika publikoen tresna egituratzaileetako bat bihurtzen da.

Halaber, ereduak JIHa berrikuntza publikoko eremutzat ulertzen du, sareko zerbitzu gisa eratua, beste toki-erakunde eta instituzio batzuekin lankidetzan aritzen dena, eta herritarrentzako baliabide gisa eta Udalaren barruko arloen arteko lankidetzaren katalizatzaile gisa jarduten duena, haren ahalmen eraldatzailea eta lurralde-inpaktua indartuz.

Egitura eta erabakiak hartzea

JIHPEaren gobernantza-eredua elkarlaneko logika batetik eta erakundeen eta gizartearen arteko erantzunkidetasunaren logikatik egituratzen da. Planaren antolaketaren, koordinazio teknikoaren eta garapen operatiboaren erantzukizun eta jarduera nagusia Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuari dagokion arren, zerbitzu horrek lankidetza-sistema zabalago baten nodo artikulatzaile gisa egiten ditu funtzio horiek.

Erabaki estrategikoak eta orientazio-erabakiak arlo eskudunak hartzen ditu bere gain, IHko Zerbitzuarekin lankidetza estuan, eta Iruñeko udal-lehentasunekiko baterako diseinuko, kontraste teknikoko eta lerrokatzeko dinamikak ezartzen ditu.

Ereduak, gainera, laguntza aktiboa ematen du, entitate eta pertsona interesdunekiko laguntzaren, aholkularitzaren eta jarraipenaren bidez, eta JIHPEaren inplementazioan modu eraginkorrean inplikatzea sustatzen du. Ekarpenak eta balorazioak zuzenean jasotzeko tresna batzuen bidez egituratzen da. Tresna horiek elkarrizketarako, ebaluazio partekaturako eta kontuak emateko espazio egonkor bat sortzen dute, eta horrela gobernantza-sistema irekia, deliberatiboa eta etengabeko hobekuntzara bideratua sendotzen da. Tresna horiek ekintza gisa jaso dira, eta JIHPEan txertatu, hiru ildo estrategikoetako bakoitzean.



JIHPEaren gobernantza-eredua

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren eginkizunak

Gobernantza-ereduaren esparruan, IHko Zerbitzua pieza operatibo nagusi gisa eta udal-zeharkakotasunaren nodo artikulatzaile gisa eratzen da; ekintzen sustapen-, babes- eta lidergo-ikuspegia txertatzeaz arduratzen da, eta integratzailea eta kolaboratiboa da, hiri jasangarriago, bidezkoago eta erresilienteago baterantz aurrera egin ahal izateko.

Gainera, zeharkako hainbat ekintza ditu:

Funtzio informatzailea eta komunikatzailea (barneko lehentasunezko ardatza)

IHko Zerbitzuak eragile informatzaile estrategiko gisa jardun behar du, udal-zerbitzuei jasangarritasunari buruzko eduki zorrotz eta eguneratuak emanez eta herritarrei helarazten lagunduz. Funtzio hori funtsezkoa da koherentzia instituzionala sortzeko eta efektu biderkatzailea eragiteko: JIHaren balioak eta edukiak barnean lantzeak aukera ematen du balio eta eduki horiek proiektu sektorialetan txertatzeko, eta, ondoren, gizarterantz proiektatzeko. Komunikazioa bi norabideko prozesu egituratutzat hartzen da, eta baliabide espezifikoak, plangintza eta arloen arteko koordinazioa eskatzen ditu.

Funtzio hezitzailea eta gaikuntza-funtzioa (gaitasunen garapena)

IHko Zerbitzuak xede hartzaile desberdinetara egokitutako gaikuntza-prozesuak erraztu behar ditu. Bere zeregina ez da, halabeharrez, prestakuntza guztia gauzatzea, baizik eta beharrak identifikatzea, ibilbideak egituratzea eta prestakuntza-baliabide espezializatuak antolatzea. Funtzio horren barnean daude udal-langileen barne-prestakuntza nahiz erakundeen, hezkuntza-komunitatearen eta herritarren gaikuntza. Hezkuntza-arloan, baliabideak koordinatzeaz, trukerako guneak sortzeaz eta ekimenak zabaltzeaz arduratzen den erreferentziazko erakundetzat aitortzen da, JIHan ikaskuntza-sare bat finkatuz.

Proiektuen funtzio sustatzailea eta bultzatzailea (zeharkako dinamizazioa)

Proiektuak eta ekintzak sustatzea ardatz nagusi bat da, bereziki herritarrekin eta kolektiboekin lan egiten denean. IHko Zerbitzuak ekimen berritzaileak sustatu behar ditu, trantsizio ekologikoarekin lerrokatuta daudenak, udal-programetan ingurumen-neurriak txertatzea erraztu eta arloen arteko sinergiak sortu. Funtzio horrek JIHPEaren zeharkakotasuna indartzen du eta JIHa finkatzen du berrikuntza publikoaren bultzatzaile palanka gisa.

Babes eta laguntza teknikoko funtzioa (erraztea eta aholkularitza)

Beste erakunde, programa eta arlo batzuei laguntzea lehentasunezko eskaera da, bai barruan, bai kanpoan. Aholkularitza teknikoa, baliabideen hornidura, orientazio metodologikoa eta ekimenen jarraipena eskatzen ditu. Herritarrentzat eta kolektiboentzat, laguntza horrek ingurumen-proiektuetan aktiboki parte hartzeko informazioa, tresnak eta euskarria ematea dakar berarekin, erantzukidetasun soziala sendotuz.

Lidergo estrategikoko eta finantzaketa selektiboko funtzioa

Nahiz eta lidergoa ez den gehien eskatzen den zereginetako bat, IHko Zerbitzuak bere gain hartu behar du ikuspegi integrala eta sektoreen arteko artikulazioa eskatzen duten programa estrategikoen koordinazioa. Finantzaketari dagokionez, zerbitzuak, inplikatutako gainerako eragileekin batera, finantzaketa-iturri egokienak zein diren zehaztuko du.

Sareko zerbitzua eta eredugarritasun instituzionala

IHko Zerbitzuak sareko zerbitzu gisa jardun behar du, udaleko beste arlo batzuekin eta kanpoko erakundeekin lankidetzan arituz, eta JIHan erreferente tekniko izanez. Halaber, eredugarri izan behar du, jasangarritasun-irizpideak txertatu bere antolaketa-jardunean eta sinesgarritasun instituzionala indartu.

Eginkizun horiek xede hartzaileen arabera bereizten dira, diagnostikoan identifikatutako beharretatik ondorioztatzen den moduan. Hala ere, lidergoaren eta sareko zerbitzuaren funtzioa hiru xede hartzaileetatik harago joaten da.

Udaleko lantalde teknikoak eta eta politikoak	Hezkuntza-sektorea	Herritarrak eta kolektiboak
•Informatzailea eta komunikatzailea •Prestatzailea •JIHako proiektuen sustatzailea •Babes eta lankidetzakoa	•Koordinazio eta hedapenerako erreferentziazko erakundea •Prestatzailea •Baliabideen bideratzailea	•JIHako proiektuen sustatzailea •Prestatzailea •Babes eta lankidetzakoa •Eredugarritasun instituzionala

Zeharkakoa
•Lidergo estrategikoa •Sareko zerbitzua

IHko Zerbitzuaren lehentasunezko funtzioak, xede hartzaileen arabera

Funtzio horiek eraginkortasunez hedatzeko, baliabide ekonomiko, material eta giza baliabideen behar besteko zuzkidura izan behar da, JIHPEan antzemandako premien arabera dimentsionatuta. Egitura-oinarri hori izan gabe, komunikatzeko, trebatzeko, sustatzeko,

babesteko eta lidergoa izateko gaitasuna mugatuta egongo da, eta gobernantza-ereduaren eraginkortasuna arriskuan jarriko da.

4. ABIAN JARTZEKO LEHEN URRATSAK


Ekintzak lehenestea

Ezaugarri horiek dituen plan bat abian jartzeak esan nahi du ekintza ugari integratu behar direla. Ekintza horietako batzuk zehatzak eta erraz gauzatzeko modukoak dira, beste batzuk zabalagoak, eta, are gehiago, egonkorragoak ere bai. Hortaz, horiek ezartzeko antolaketa behar da. Hori dela eta, JIHPEaren hasiera erraztuko duten hasierako 3 alderdiri erreparatzea proposatzen da:

1. Lehenengo fasean, hasteko ezinbestekoak diren egiturazko eta antolaketako zereginei heltzea, hala nola: antolaketa, beharrezko giza taldea, eskura dauden baliabideak, beste arlo, erakunde edo kolektibo batzuekin koordinatzeko eta jarraipena egiteko mekanismoak.

2. Beharrezkoak diren egitura edo baliabide berriak modu sekuentzialean abian jartzea. Maila politikoan eta teknikoan inplikazio zuzena dagoela bermatuz eta erraztuz, osorik garatzen dela ahalbidetzeko eta JIHPEa garatzeko orientazio gisa balio dezan.

3. IHko Zerbitzuak ekintzen urteko proposamena egitea. Horretarako, hainbat irizpide proposatzen dira, urtero gauzatu beharreko ekintzen azken definizioan konparazioa egin ahal izateko, grafikoan adierazten den moduan.



JIHPEaren ekintzak hautatzeko eta jarraitzeko irizpideak

- EGOKITZAPEN TEKNIKOA irizpideak ekintzaren garrantzia markatuko du, hainbat alderdi kontuan hartuta, hala nola garrantzia, urgentzia edo bideragarritasuna. Alderdi hauekin lotzen da, besteak beste: Udal-mailako lehentasun bat da? Kanpo-finantzaketa dagoela eta, pasatzen utzi ezin den aukera bat da? Antzemandako premia berri bat da? Garatzeko baliabideak daude eskuragarri? Eta abar.
- GAUZATZEKO EPEA izango da beste alderdi esanguratsu bat. JIHPEa 2026tik 2032ra aplikatuko dela kontuan hartuta, ekintzaren garapena 4 alditan defini daiteke: orainaldia (2026), epe laburra (2027-2028), epe ertaina (2029-2030) edo epe luzea (2031-2032).
- Azkenik, beste irizpide bat ekintzen ANIZTASUNA izango da. Gomendagarria da aldi baterako hautatutakoak ahalik eta askotarikoenak izatea, hiru alderdi hauen arabera: xede hartzaileak (hezkuntza-komunitatea, udal-langileak edo herritarrak), erabiltzen diren JIHako tresnak (informazioa-komunikazioa, sentsibilizazioa, prestakuntza-gaikuntza, parte-hartzea eta ebaluazioa-ikerketa) eta planteatutako helburuen aniztasuna.

Planaren diseinuan 44 ekintza lehenetsi dira, JIHPEa aplikatzen den lehenengo urtean (2026) gauzatzeko. Hau da, 90 proposamenen % 49, eta 1. ildo estrategikoak biltzen ditu ekintza esanguratsu gehien. Erantsitako taulan, lehenetsitako ekintzen kopurua laburbiltzen da, ildo estrategikoaren eta aldiaren arabera.

ILDO ESTRATEGIKOAK	2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
1. IE	26	8	8	2
2. IE	10	4	9	2
3. IE	8	5	4	4
OROTARA	44	17	21	8
	90			

Lehenengo sailkapen horrek JIHPEaren ekintzak abian jartzea erraztuko du, eta urtero jarraipena egin eta doitu beharko da.

5. atalean ekintza bakoitzaren urgentzia eta garrantzi erlatiboa islatzen duen egutegia aurkezten da.

Ekintzak denboran zehar

JIHPEa JIHa hirian integratzeko modu berri bat ezartzeko diseinatuta dago, hiru ildo estrategikoetan. Hori dela eta, ekintza gehienak ez daude diseinatuta edo pentsatuta helburu bat izan dezaten, prozesu baten parte diren ekintza gisa baizik. Ekintza horien helburua da funtzionamenduan finkatzea eta integratzea, eta, horregatik, ekintza horietako askok Planaren indarraldi osoan lagun egingo digute. Plana amaitu ondoren, denboran jarraitzeko beharra dagoen baloratuko da.

Planaren denboralizazioa eta indarraldia

Arestian aipatu den moduan, eta planteatutako ekintzen denbora-aniztasuna kontuan hartuta, JIHPEa tresna malgua izateko diseinatu da, eta bertan ekintza berriak integratu ahal izango dira daudenak gauzatu ahala. Hala ere, Plana oro har 6 urtean behin berrikustea gomendatzen da, diagnostikoa eta ekintza-plana eguneratzeko, udal-bizitzaren errealitate aldakorrera egokitze aldera.

5. LAN-EGUTEGIA

1. IE	1.1. helburua. Udal-langileak jasangarritasunean sentsibilizatu eta trebatzea		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Prestakuntza-plan orokorra garatzea	1. Prestakuntza integraleko planerako esparru-dokumentu bat diseinatzea, izapidetzea eta aplikatzea. Dokumentu horrek udal-langileen bizi-zikloaren etapa guztiak hartuko ditu barne (oposizio- eta harrera-prozesuetatik hasi eta lanpostuko garapeneraino), eta hierarkia-maila guztiak barne hartuko ditu, bai arduradun politikoak, bai talde teknikoak.				
	Udal-enplegu publikorako sarbidean jasangarritasuna txertatzea	2. ETKAE 2030 Iruñeko Udalaren lan-eskaintza publikoko gai-zerrendetan sartzea, lanbide-profilaren arabera edo interesgarritzat jotzen diren jasangarritasunari buruzko beste dokumentu batzuen arabera bereizitako mailekin.				
	Udaleko langile berriei harrera egitea	3. Udal-lantaldeko langile berrientzako harrera-saioak egitea, ingurumen-egoera globala, lokala eta udal-dokumentu estrategikoak testuinguruan jartzea, bai eta lanpostu bakoitzaren ingurumen-eskumenak ere.				
		4. Lanpostuan lortutako esperientziaren, JIHa biltzen duten sinergiak hautematearen eta prestakuntza-beharrak zehaztearen arabera, berriz ebaluatzeko saioak egitea.				
	Sentsibilizazioa eta prestakuntza orokorra udalarentzat lan egiten duten udaleko edo kanpoko langileentzat	5. Lantokiko jardunbide egokiei buruzko prestakuntza: hondakinen murrizketa eta zuzeneko kudeaketa, energia-aurrezpena eta -efizientzia eta hornigaien kontsumo arduratsua.				
		6. JIHra hurbiltzeko sentsibilizazioa. ○ JIHaren zeregina, udal-kudeaketari laguntzeko tresna gisa. ○ Zeharkakotasunez ezartzea jasangarritasuna politika publikoetan.				
		7. Herritarrekiko komunikazio-metodo eta -tresnei buruzko prestakuntza. ○ Garatzen diren proiektuetan informazioa eta komunikazioa gauzatzeko oinarrizko prestakuntza. ○ Komunikazioa egoera bortitzetan edo gatazka-egoeretan.				
		8. Partaidetza- eta bideratze-metodologiei buruzko prestakuntza, Partaidetza Zerbitzuarekin lankidetzan. ○ Parte-hartzeko ekintzetarako lan teknikak. ○ Taldeak bideratzeko tailerra.				

		9. Honako gai hauei buruzko informazio-kapsulak, "eskuragarri" formatua: ○ Naturarekin berriz konektatzea, ekodependentzia eta interdependentzia. ○ Zeharkako ingurumen-erronkak eta horiek udal-ekintzarekin duten lotura. ○ Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategia, Hiri Agenda Iruña 2030, Azpiegitura Berde Eta Urdinaren Plana eta Hiri-drainatze Jasangarriko Estrategia. ○ Erosketa berdea eta jasangarritasunaren ezarpena politika publikoetan eta lizitazio-prozesuetan. ○ Hirian garatutako ingurumen-izaerako udal esku-hartzeak.				
	Prestakuntza espezifikoa udalarentzat lan egiten duten udaleko edo kanpoko langileentzat	10. IHko Zerbitzuak interesgarritzat jotzen dituen prestakuntzak antolatzea, gainerako udal-zerbitzuei jasangarritasun-gaietan trebatzea errazteko, hala nola hauetan: agroekologia udal-politikan ezartzea, hazkunde osteko hirietarako plangintza, energia-pobreziari buruzko prestakuntza, etxebizitza kooperatibo eta eskuragarrien ereduak, etab.				
		11. Beste zerbitzu batzuek detektatutako prestakuntza-beharrak hartu, jaso eta eguneratzea, hala nola hauek: drainatze jasangarriko hiri-sistemak, hiriaren birnaturalizazioa, karbono-aztarnaren kalkulua, hiri-berroneratzea, eguzki-plaken instalazioa, ingurumen-arloko arau-betebeharrak, mugikortasun jasangarria, jasangarritasunaren aplikazioa lorezaintza-obretan, jasangarritasunaren aplikazioa kirol-instalazioetan, jasangarritasunari heltzea hurbileko merkataritza-sektorean, etab.				
		12. Jasangarritasunari buruz lehendik dauden eta beste zerbitzu batzuentzat interesgarriak izan daitezkeen prestakuntzak ematea.				
1. IE	**1.2. helburua. Arloen artean lankidetzan aritzea JIHa indartzeko**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Barne-kudeaketa jasangarrira hobetzen dugu, ekintza globalen bidez	1. Udal-langileentzako informazio eta sentsibilizaziorako kanpaina, kontratak eta garbiketa-zerbitzuak barne harturik.				
	Zeharkako prestakuntzak: prestakuntzak lankidetza-esparru gisa	2. Arlo eta zerbitzuetako diziplina arteko eta diziplina anitzeko lanari lotutako prestakuntza-ekintzak diseinatzea, hala nola lantaldeetan erabakiak batera hartzeari lotutako proiektuak edo prestakuntzak garatzeko lankidetza-mahai teknikoak.				
	Jasangarritasuna beste zerbitzu batzuetan txertatzea	3. Agroekologia sustatzea udal-agendan lehentasunezko gai gisa. Hiri Ekologiarekin batera egin beharreko ataza da.				
		4. Udal-agendan interesgarriak diren beste gai batzuk sustatzea, hala nola osasuna.				

		5. JIHko tresnak integratzea, proiektu estrategikoen – bereziki, hainbat arloren arteko lankidetza errazteari lotutakoen– diseinutik eta exekuziorik. Lagundu dezaketen zerbitzu batzuk Hiri Ekologia, Proiektuak edo Hirigintza Gerentzia dira.				
		6. Kontratazio-agirietan jasangarritasun- eta ingurumen-irizpideei buruzko klausulak –jasangarritasunari lotutako prozesu-aldaketak faboratzen dituztenak– garatzen laguntzea, Hiri Ekologiarekin batera. Lagundu lezaketen zerbitzu batzuk Proiektuak, Hirigintza Gerentzia edo Iruña Biziberritzen dira.				
		7. Dirulaguntza- eta laguntza-agirietan jasangarritasun- eta ingurumen-irizpideei buruzko klausulak –jasangarritasunari lotutako prozesu-aldaketak faboratzen dituztenak– garatzen laguntzea, Hiri Ekologiarekin batera. Lankidetzan jardun lezaketen zerbitzu batzuk Partaidetza, Gazteria, Hezkuntza edo Berdintasuna dira.				
		8. Ingurumen-ikuspegia hainbat udal-arlotatik gauzatzen diren plan, estrategia eta itunetan txertatzea, Hiri Ekologiarekin batera.				
	Herritarrei zuzendutako hiriko esku-hartzeak komunikatzen laguntzea	9. Koordinazio egonkorra Komunikazio Zerbitzuarekin, jasangarritasunarekin lotutako komunikazio-ekintzak lehenesteko.				
		10. Ingurumen-gaiei buruzko komunikazioa eta informazioa modu koordinatuan ematea herritarrei, eta Udaleko zerbitzuek ematen dituzten mezuak bateratzea, bereziki Jasangarritasun Zerbitzuenak.				
		11. Jarduerak garatu aurretik herritarrak sentsibilizatzera eta informatzera bideratutako kanpainak diseinatzen laguntzea (lorategietako edo bide publikoko bestelako esku-hartzeak, xurgatze-basoak, komunitate-baratzeak, etab.).				
		12. Beste udal-zerbitzu batzuen ekintzak komunikatzen eta zabaltzen laguntzea, JIHko zerbitzuaren tresna propioekin (webgunea, sare sozialak, aldizkari elektronikoa, etab.).				
		13. Gainerako zerbitzuei dagozkien planen eta estrategien barne-zabalkundean eta -komunikazioan laguntzea ingurumen-gaietan, hala nola ETKAE eta azpiegitura berde eta urdinaren plana eta hiri-drainatze jasangarriko estrategia.				
	Inplikatutako udal-zerbitzuetan JIHko tresnak ezartzeko lankidetza	14. Beste zerbitzu batzuek egiten dituzten eta hezkuntza-ikuspegia biltzen duten ingurumen-ekintzetan lankidetzan aritzea, aholkua ematea eta JIHko irizpideak txertatzea. Gauzatu ahal diren balizko ekintzak: ○ Elkarteetan eta kolektiboetan jasangarritasun-planen sorkuntza sustatzeko partaidetza-zerbitzuari laguntzea. ○ Hezkuntza-zerbitzuarekin ingurumen-ekintzak sustatzea, hala nola hamaiketako osasungarriak, ohiturak, konpromisoak...				

		○ Merkataritza eta Turismo zerbitzuekin lankidetzan aritzea, ostalaritza-sektoreak agroekologia bultzatzeko. ○ Turismo Zerbitzuari laguntza ematea Arga Ibaiaren Parkearen gainean *escape room* bat sortzeko. ○ Haurren eta Nerabe eta Gazteen zerbitzuekin elkarlanean aritzea haurrak eta gazteak mobilizatuko eta ikuspegi eta portaera jasangarri batera hurbilduko dituzten tresnak diseinatzean. ○ Berdeguneetan zentratutako JIHko programa egonkor bat ezartzen laguntzea, hezkuntza-sektoreari zuzendua, Lorategien Zerbitzuarekin. ○ Ekofeminismoari buruzko programa, Berdintasun Zerbitzuarekin lankidetzan. ○ Udal Energia Agentziarekiko elkarlana mantentzea energia-komunitateak sortu eta garatzean eta jasangarritasun-irizpideak integratzean. ○ Proiektu-zerbitzuaren esku-hartzeetan herritarrak inplikatzea eta haien partaidetza ahalbidetzen laguntzea.				
		15. Komunikazio egonkorra Bulego Estrategikoarekin, JIHko proiektu europarrak bilatzeko.				
	Topaketa- eta lankidetza-mekanismo egonkorrak garatzea	16. Koordinazioa, lankidetza eta lan bateratua hezkuntzan eskumena duten edo hezkuntza-esparruan esku hartzen duten beste udal arlo batzuekin (Hezkuntza, Partaidetza, Mugikortasuna, Proiektuak, etab.).				
		17. Gizarte Ekintzako Arloarekin koordinatzea, lankidetzan aritzea eta lan bateratua egitea jasangarritasuna bere alderdi sozialenean garatzeko.				
		18. Mahai teknikoetan eta zerbitzuen arteko lankidetza-mahaitan –nola existitzen direnetan hala etorkizunekoetan– parte hartzea, hala nola hauetan: eskolako jolastokiak birnaturalizatzeko mahaia, ikaskuntzarako eta zerbitzurako mahaia, etorkizuneko zainketen mahaia, etab.				
		19. Zerbitzuen arteko mahai tematikoak sortzea, JIHa aplikatzeko gai zehatzekin, hala nola hauekin: ○ Jasangarritasuna herritarrei bideratutako udal-eskaintzan txertatzea. Honako zerbitzu hauek izan dezakete interesa: Gazteria, Haurtzaroa, Adinekoen Sarea, Kultura eta beste batzuk. ○ Ingurumen-kudeaketako esku-hartzeen komunikazioa eta herritarren sentsibilizazioa. Parte hartu dezaketen zerbitzu batzuk Proiektuak, Hirigintza Gerentzia, Iruña Biziberritzen eta jasangarritasun-zerbitzuak dira.				

1. IE	1.3. helburua. Egungo ingurumen baliabide- eta -ekipamenduen erabilera optimizatzea.		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Ingurumen-arloko beste baliabide eta espazio batzuei babesa eta laguntza ematea	1. Aholkularitza eta laguntza beste zerbitzu batzuen gauzatutako ingurumen-baliabideetan, hala nola hiriko naturaguneen seinaleei buruzkoetan.				
		2. Aholkularitza eta laguntza ematea beste entitate batzuek, hala nola Casa Sotok, ingurumen-ekipamenduetan egiten dituzten ingurumen-jardueretan.				
	Ingurumen Hezkuntzako Museoari balioa ematea irakaskuntzako ekipamendu gisa.	3. Udaleko beste zerbitzu batzuek gunea erabil dezaten bultzatzea, Gizarte Ekintzak edo Gazteriak jada usatzen dituzten bezala.				
		4. Ingurumen-gaiak lantzen dituzten kolektiboei gunea lagapenean uztea.				
		5. Ekipamendua egokitzea behar berrietara, eta horietarako mantentze-lanak egitea.				
1. IE	**1.4. helburua. Udalaz gaindiko trukea bultzatzea**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Udalaz gaindiko erakunde interesgarriekiko koordinazioa	1. Jasangarritasun-arloan lan egiten duten udalaz gaindiko erakundeekin koordinatzea, esate baterako: Lursarea, Nasuvinsa, MCP, Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoa, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, etab.				
	Sareetan parte hartzea eta lankidetzan aritzea	2. JIHaren arloan lan egiten duten entitateen arteko koordinazio-egituretan lankidetzan aritzea eta parte hartzea. Honako hauek dira ekintzotako batzuk: ○ JIHEPeko –Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Planeko (Espainiako Estatua)– toki-entitateen lantaldea. ○ JIHNEko –Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategiako– toki-entitateen garapen-lantaldea. ○ Sor litezkeen beste lantalde batzuk, baldin eta interesgarriak badira.				
		3. Hiri Agroekologikoen Sarea bultzatzea eta bertan aktiboki parte hartzea.				
		4. Iruñeko hiria sustatzea, parte hartzen duen sareen topaketa eta jardunaldien antolatzaile zein anfitrioi gisa.				
	Topaketak eta jardunaldiak bultzatzea	5. Udalaz gaindiko beste hiri eta entitate batzuekin topaketak bultzatzea, esperientzia arrakastatsuak eta jardunbide egokiak ezagutzeko eta teknikariak talde homologoekin harremanetan jartzeko.				

1. IE	1.5. helburua. JIHaren inpaktua ezagutzea eta balioestea, hobetzeko		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Eraginaren ikerketa - ebaluazioa	1. Parte-hartze bidezko ebaluazioak egitea, gauzatutako JIHko ekintzetan inplikatutako zerbitzuekin.				
		2. Proiektuen tipologia desberdinetarako erreplika daitezkeen JIHko kasuak aztertzea eta jardunbide egokiak hautatzea.				
		3. Lankidetza-hitzarmenak JIHan espezializatutako unibertsitate eta entitateekin, JIHko tokiko politiken eraginari buruzko gradu/master amaierako lanak, tesiak edo aplikatutako ikerketak sustatzeko.				
		4. JIHko ekintzek udalerrian sortutako inpaktuari buruzko azterlana egitea.				
2. IE	**2.1. helburua. Ingurumen-errealitatea ikastetxeetara eramatea**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Udal-mailako lehentasunezko gaien mobilizazioa	1. Iruñeko Udalaren lehentasun tematikoekin lotutako hezkuntza-programak babestea eta mobilizatzea. Askotarikoak izan litezke, eta eboluzionatuz joan, udal-jarraibideen arabera. Adibidez: ○ Ingurumen-gezurrak, desinformazioa eta negazionismoa. ○ Naturarekiko konexioa. ○ Osasuna eta ingurumena. ○ Agroekologia, elikadura eta kontsumoa. ○ Mugikortasuna. ○ Birnaturalizazioa. ○ Klima aldaketaren eraginak arintzea eta haiei egokitzea. ○ Edo udal-kudeaketako lehentasunezko beste gai batzuk.				
	Ikastetxe barrurako eta kanporako komunikazioa	2. Ikastetxeekin komunikazio ekintzak garatzea, bai hezkuntza-programen informazio-mailan, bai haientzat interesgarriak diren beste udal-ekimen batzuetan.				
		3. IHko Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea, ikastetxeek haiei ikusgarritasuna emateko egindako ekimenen bozgorailu gisa.				

2. IE	2.2. helburua. Hezkuntza-komunitatearen JIHko eskumenak indartzea		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Prestakuntza duten irakasleen trebakuntza babestea	1. Irakasleentzako prestakuntza orokorra, JIHko edukiei eta tresnei dagokienez, hala nola: ○ JIHra hurbiltzea. ○ Hezkuntza Ekosoziala. ○ Irakasleak ingurumen-edukietan prestatzea eta sentsibilizatzea. ○ Askotariko ikaskuntza-metodologiak (ikaskuntza esanguratsua, taldeen kudeaketarako metodoak, naturarekiko lotura, esperimentazioa, arte-diziplinak, etab.).				
		2. Irakasleak udal-kudeaketarekin lotutako ildo berrietan prestatzea, hala nola birnaturalizazioan edo interesgarriak diren beste batzuetan.				
		3. JIHko askotariko gaitasunak eta integrazioa kontuan hartzen dituzten prestakuntza espezifikoak, desgaitasuna duten pertsonak kontuan hartuta.				
		4. Prozesu-programen garapenean trebatzea, nola garapena hala emaitzak kontuan hartuta, emaitza onak dituzten programen prestakuntza metodologikoari jarraituz, hala nola eskola-baratzeak edo xahutzearen aurkako ekintza.				
	Etorkizuneko prestatzaileen prestakuntza	5. Etorkizuneko prestatzaileen (irakasle-ikasketetako graduetako, Irakaskuntzako Masterreko) edo Lanbide Heziketako graduetako ikasleen (haur-hezkuntza) JIHko prestakuntzan eta trebakuntzan aurrera egitea.				
		6. Hainbat espezialitatetako (Lanbide Heziketa eta unibertsitateko graduak) ikasleek Ingurumen Hezkuntzako Udal Zerbitzuan praktikak egiteko programa.				
	Familien prestakuntza GEen eta guraso-eskolen bidez	7. Zuzeneko prestakuntza: Udalak gauzatzen dituen hezkuntza-proiektuen barruan familiak gaitzea, hala nola patioen birnaturalizazioan, etab.				
		8. Zeharkako prestakuntza: hezkuntzako, ingurumen-hobekuntzako eta trantsizio ekologikoko irizpideak sartzea guraso-eskolen jardueretara bideratutako dirulaguntzetan, ikaskuntza eta ezagutza berriak sortzen direla.				
2. IE	**2.3. helburua. Ingurunea eraldatzeko gaitasuna duten hezkuntza-programak bultzatzea**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Irakasleei tresnak eta baliabideak ematea	1. Ikastetxeek kudeaketa autonomoko baliabide didaktikoak zabaltzea eta indartzea (ikaskuntza-egoerak, online jarduerak, material bidaiari eskuragarriak, etab.), lehentasunezko ingurumen-gaietan, hala nola biodibertsitatean, osasunean edo naturarekiko loturan.				

		2. Hiria ekosistema gisa ezagutzeko jarduera puntualen programa bat garatzea, beste zerbitzu batzuekin lankidetzan, hala nola Lorategien Zerbitzuarekin. Berdeguneak, mintegiak edo energia-azpiegiturak dira bisitatu daitezkeen leku interesgarrietako zenbaitzuk.				
	Ikasleekin prozesu-programetan parte hartzea eta jardutea	3. Besteak beste, «Eskolako baratze ekologikoak» eta «Energia xahutzearen aurkako ekintza» hezkuntza-programak berrikustea eta etengabe hobetzea.				
		4. Larrialdi klimatikoari buruzko hezkuntza- eta partaidetza-programa bat garatzea, Bigarren Hezkuntzari zuzendua, *Break-out* tresna baten inguruan.				
		5. Eskola-komunitatearen eta haren ingurunearen ikerketa-ekintzako programa bat garatzea, eraldaketa komunitariorako.				
		6. Ikastetxeei laguntza, aholkularitza eta baliabideak ematea hirian eragina duten ikaskuntza- eta zerbitzu-proiektuak edo herritarren zientzia-proiektuak diseinatzeko.				
2. IE	**2.4. helburua. Lana, entitateen arteko lankidetza eta sareko lana sustatzea**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Hezkuntza-programak beste entitate batzuekin elkarlanean garatzea	1. Gazte atala mantentzea Nazioarteko Ecozine Jaialdian, Ecozine Kultur Elkartearekin lankidetzan.				
		2. Udalak sustatutako etorkizuneko hezkuntza-programak beste entitate batzuekin elkarlanean garatzea.				
	Ikastetxeen arteko sareko lanerako babesa eta laguntza	3. Harremanetan ipintzea, trukea eta elkar ezagutza bultzatzea eta erraztea, ikastetxeen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako, askotariko tresnen medioz, hala nola: ○ IHko Zerbitzuak ikastetxeei ekimenen berri ematea. ○ Hainbat ikastetxe inplikatzen dituzten proiektuen lankidetza eta sustapena, Iruñean ekintza zehatzetan batu ditzaten.				
	Hezkuntza-sareekin elkarlanean aritzea eta hezkuntza-sareak sortzea	4. Koordinazioa eta lankidetza hezkuntzan eskumena duten edo hezkuntzaren esparruan esku hartzen duten beste entitate publiko batzuekin: ○ Eskola Jasangarrien Sarearen lantaldea (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua). ○ Beste batzuk: Klima-aldaketaren Bulegoa (Nafarroako Gobernua, IM, NILSA, NUP, UNAV, etab.).				

2. IE	2.5. helburua. Etengabeko hobekuntza sustatzea		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	JIHa hezkuntza-esparruan hobetzea	1. Zerbitzuak gauzatzen dituen hezkuntza-programen parte-hartze bidezko ebaluazioak egitea.				
		2. JIHko esperientziak, tresnak, metodologiak eta abarrak trukatzeko eta elkartzeko jardunaldiak, hezkuntzaren arloko aurrerapenen balioa nabarmentze aldera.				
		3. Lankidetza-hitzarmenak JIHn espezializatutako unibertsitate eta entitateekin, hezkuntza-sektorean JIHa integratzeari buruzko gradu/master amaierako lanak, tesiak edo aplikatutako ikerketak sustatzeko.				
		4. JIHko ekintzek hezkuntza-esparruan sortutako inpaktuari buruzko azterlana egitea.				
3. IE	**3.1. helburua. Herritarrak sentsibilizatzea eta mobilizatzea ingurumen- eta gizarte-erronken aurrean**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Herritarren eta Udalaren arteko komunikazio bideak sortzea	1. Inpaktu-gaitasuna izango duten eta nola biztanleriari orokorrean hala sektore espezifikoei zuzendutako komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak garatzea, udal-lehentasunezko ingurumen-proiektuekin lotuta (birnaturalizazioa, energia-komunitateak, etab.).				
		2. Udalaren komunikazio-baliabideak erabiltzea eta kudeatzea, gizartea eraldatzeko tresna gisa: ○ IHko Zerbitzuaren webguneko edukiak kudeatzeko ekintza egonkorra, hainbat edukirekin, hala nola hauekin: programatutako programak eta ekintzak, eskuragarri dauden materialak, jarduketen egutegia, albiste interesgarriak edo beste batzuk. ○ Zerbitzuaren sare sozialen (Facebook, X eta Instagram) edukiak kudeatzea, informazioa emateko eta sentsibilizatzeko, bai eta gizartea eraldatzeko tresna gisa usatzeko ere. ○ Hamabost egunez behingo informazio-buletina egitea. ○ IHko Zerbitzuaren hainbat alderdiri buruzko komunikazio instituzionala (prentsa-oharrak, bideoalbisteak, etab.).				
	Kultura ekosoziala: herritarrak aktibatzeko tresna eraldatzaileak eskaintzea	3. Esku-hartzeak diseinatzea eta planifikatzea herritarrekin, lehentasunezko ingurumen-gaietan parte har dezaten bultzatzeko, hainbat sakontze-mailarekin (prestakuntza-ekintzak, jolas-ekintza orokorrak, espezializatuak, luzarokoak, konpromiso handikoak, etab.).				
		4. Kultura ekosoziala udalaren kultura-ekipamenduetan –Civivox delakoetan, esaterako– eskaintzen den kultura-eskaintzan integratzea, udalaren lehentasunezko ingurumen-gaien ildotik.				
		5. JIHa hainbat biztanleria-profilekin lan egiten duten hiriko beste gune kultural eta soziokomunitario batzuetan sartzea (hala nola liburutegiak edo museoak).				
		6. Kultura ekosoziala integratzea hainbat udal-zerbitzuk (Adinekoen Sarea, Garapenerako Lankidetza, Partaidetza edo Haur eta Nerabeak) herritarrei eskaintzen dieten eskaintzan.				

		7. Gazteentzako programa espezifikoa, gazteentzako guneetara hurbiltzen dena (aisialdi-guneak, musika-jaialdiak, udako programazioa, udalekuak, etab.), eta estrategia espezifikoak –biztanleria-sektore horretara egokituak– diseinatuko dira partaide aktibo izan daitezen.				
		8. Herritarrei zuzendutako boluntariotza-ekintzak garatzea (herritarren zientzia-ekintzak, landaketak, etab.), udal-kudeaketan laguntzeko eta herritarren ezagutza eta aktibazioa bultzatzeko.				
		9. Ekintza klimatikoko taldeak bultzatzea, trantsizio ekologikoan herritarrak modu kolektiboan ahalduntzeko.				
		10. Ecozine Zinema eta Ingurumeneko Nazioarteko Jaialdia garatzea.				
3. IE	**3.2. helburua. Gizarte-kolektiboekiko lankidetza bultzatzea**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Herritarren kolektiboei prestakuntza eta trebakuntza ematea	1. Hausnarketa-ekintzarako dagoeneko ezarrita dauden taldeak dinamizatzea, klima-krisia modu kolektiboan lantzeko.				
		2. Energia-komunitateak eta halako kolektiboak osatzen dituzten pertsonentzako prestakuntza-ikuspegia, alderdi teknikoetan eta antolamenduzkoetan, komunikazio- eta sentsibilizazio-trebetasunetan edo bestelako gai interesgarrietan gaitzeko.				
	Kolektiboetan ingurumen-irizpideak txertatzea	3. Hiriko ekitaldi publikoei eta jasangarritasunari buruzko 36/2024 Foru Dekretuari jarraikiz, kolektiboei aholkularitza eta laguntza ematea hirian ekitaldi jasangarriak garatzeko. Ekintza hori Hiri Ekologiako Zerbitzuarekin batera gauzatuko da.				
		4. Elkarteei ingurumen-ikuspegia emateko programa bat garatzea, Hiri Ekologiarekin batera, elkarteok ingurumen-irizpideak eta jardunbide egokiak arian-arian txertatzeko barne-funtzionamenduan eta ohiko jardueretan (baliabideen erabilera efizientea, hezkuntza hondakinen kudeaketan, mugikortasun jasangarrira, etab.).				

3. IE	**3.3. helburua. Jasangarritasuna kolektibo profesionaletara hurbiltzea**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Sentsibilizatzeko eta mobilizatzeko lankidetza	1. Erakunde eta elkargo profesionalekin lankidetzan aritzea, ingurumen-arloko sentsibilizazio eta mobilizaziorako ekimen zehatzak sustatzeko. Adibidez: o Merkataritzaren arloko jardunbide egoki eta jasangarriak. o Eraikinak birgaitzeko jardunbide egokiak, finken administrazioko eta beste sektore batzuetako profesionalen inplikazioarekin. o Jardunbide egokiak ekintzailetza-ehunarekin.				
	JIHko eta ingurumeneko profesionalekin sinergiak sortzea erraztea	2. JIHko eta ingurumen-arloko sare eta profesionalekin sinergiak sortzea, esperientziak trukatzeko eta proiektu komunetan lankidetzan aritzea sustatzeko, hala nola Nafarroako Ingurumen Hezkuntzako Elkartean edo Pirinioak Bizirik Hezkuntza-sarean.				
3. IE	**3.4. helburua. Jasangarritasunaren aldeko sareak ehuntzea**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	Ingurumen-kolektiboei laguntzea	1. Ingurumen-gaiei lotutako kolektiboekin eta entitateekin (Gorosti Natur Zientzien Elkartea, Geltoki, Labea, MÁS Planeta Navarra edo Asociación para la Recuperación del Bosque Autóctono, besteak beste) lankidetza- eta laguntza-proiektuak garatzea.				
	Entitate publikoetatik herritarrei egiten zaien eskaintza indartzea	2. Herritarrei egiten zaien eskaintzan lankidetza eta koordinazioa entitate publikoekin, hala nola Iruñerriko Mankomunitatearekin, Nafarroako Gobernuaren Klima Aldaketaren Bulegoarekin, NUPekin eta abar.				
3. IE	**Helburua. 3.5. JIHak gizartean duen eragina ezagutzea**		2026	Epe laburrean 2027-28	Epe ertainean 2029-30	Epe luzean 2031-32
	JIHak kolektiboengan eta herritarrengan sortutako inpaktua aztertzea	1. Iruñeko ekobarometro bat garatzea, herritarrek ingurumenaren gainean duten pertzepzioa eta sentsibilizazio-maila jasotzeko, eta hobetzeko eremuak eta ekintza-aukerak identifikatzeko.				
		2. Herritarrek programak zenbateraino ikusten, ulertzen eta onartzen dituzten aztertzea, komunikazioaren jarraipenaren bidez (hedabideak, sareak, udalaren webgunea).				
		3. JIHko ekintzek herritarrengan sortutako inpaktuari buruzko azterlana egitea.				

6. JIHPEAREN KOMUNIKAZIOA

JIHPEa abian jartzeko, komunikazio-estrategia bat ezartzea gomendatzen da, lankide dituen xede hartzaileek JIHPEa ezagutzea, inplikatzea eta bereganatzea erraztuko duena. Atal honetan, oinarrizko jarraibide batzuk ematen dira, eta jarraibide horiek komunikazio-plan batean zehaztu eta JIHPEaren lehenengo faseetan ezarri beharko dira. Faseka egituratzen da, informazio-, dibulgazio- eta partaidetza-ekintzak uztartuz, denbora-sekuentzia argi batekin.

Helburuak

- JIHPEa modu argian eta irisgarrian ezagutaraztea.
- Xede dituen funtsezko sektoreetan interesa eta konpromisoa sortzea.
- JIHa udal-kudeaketako askotariko tresna gisa kokatzea.
- Haren garapenean parte hartzea eta inplikatzea erraztea.

Gako estrategikoak

- Hizkuntza argia eta hurbila, beharrezkoak ez diren teknizismoak saihestuz.
- Koherentzia instituzionala, arloen arteko mezuak bat eginaraziz.
- Ikuspegi emozionala eta praktikoa, jasangarritasuna eguneroko bizitzarekin lotuz.
- Formatuen aniztasuna, informazioa, inspirazioa eta parte-hartzea konbinatuz.
- Denboran jarraitzea, jaulkipenaren hasierako unetik harago.

Lan-faseak

1. fasea. Prestakuntza eta diseinua

HELBURUA	EKINTZAK ETA TRESNAK

Oinarri sendoa eta koherentea sortzea komunikaziorako	• Funtsezko mezuak zehaztea (zer den JIHPEa, zertarako balio duen eta nor interpelatzen duen).
	• Planaren oinarrizko ikusizko nortasuna diseinatzea (linea grafikoa, tonua, sormena).
	• Materiala prestatzea:
	  ○ Aurkezpen-txostena.
	  ○ Prentsa-oharra.
	  ○ Web-edukiak (dibulgaziozko laburpena + dokumentu deskargagarriak).
	  ○ Sare sozialetarako sormena (kanal bakoitzera egokitutako formatuak).
	• Barne-komunikazioa udal-arloekin, mezuak bat eginarazteko.

2. fasea. Jaulkipen publikoa (1. astea)

HELBURUA	EKINTZAK ETA TRESNAK
Planari ikusgarritasuna ematea eta hasierako inpaktua sortzea	• Aurkezpen instituzional publikoa. Ekitaldia udal-ordezkariekin eta tartean dauden eragileekin. Formatu irisgarriarekin eta ikuspegi dibulgatzailearekin. • Prentsa-albistea. Tokiko eta eskualdeko hedabideetan zabaltzea, funtsezko mezuak eta ikuspegi estrategikoa sartuz. • Udalaren webgunean eta IHko Zerbitzuaren webgune espezifikoan argitaratzea, eduki argi, bisual eta nabigagarriarekin. • Sare sozialetan jaulkitzeko hasierako kanpaina. Pieza erakargarriak eta mezu sinpleak erabiliz (3–5 argitalpen lehenengo astean)

3. fasea. Hedapen segmentatua (lehenengo hilabetea)

HELBURUA	EKINTZAK ETA TRESNAK

Plana publiko gakoei zuzenean hurbiltzea	• Aurkezpen instituzional publikoa. Ekitaldi ofiziala, xede hartzaileen araberako informazio-saio espezifikoekin, horietako bakoitzera egokitutako mezu eta metodologiekin eta formatu dinamikoekin (aurkezpen laburrak, elkarrizketarako espazioak...):
	  ○ Barnekoak (Udaleko pertsonal tekniko eta politikoa).
	  ○ Hezkuntza-sektorea (ikastetxeak, irakasleak, hezkuntza-eragileak).
	  ○ Herritarrak eta kolektibo sozialak.
	• Webgunean eta sareetan sendotzea, azalpenezko edukiekin, bideo laburren, infografien edo gaikako laburpenen bitartez.


4. fasea. Finkapena eta jarraitutasuna (2.–6. hilabeteak)

HELBURUA	EKINTZAK ETA TRESNAK
Interesari eustea eta abian jartzeko hasieran lagun egitea	• Aldizkako argitalpenak sare sozialetan, ekintza-lerroak azalduta eta lehenengo ekimenak ikusgai jarrita. • Webgunea eguneratzea aurrerapen eta baliabideekin. • Esperientzia eta adibide zehatzak (hurbileko istorioak) zabaltzea. • Barneko udal-komunikazioa indartzea. • JIHPEa udalaren beste kanal eta kanpaina batzuetan integratzea.

5. fasea. Jarraipen komunikatiboa (6. hilabetetik aurrera)

HELBURUA	EKINTZAK ETA TRESNAK
JIHPEaren kontakizuna finkatzea eta haren inpaktua sendotzea	• Hasierako emaitzen eta ikaskuntzen berri ematea. • Mugarri garrantzitsuak argitaratzea. • Herritarrekin konektatzen duten edukiak sortzea (onurak, ongizatea, tokiko inpaktua). • Komunikazio-estrategiaren ebaluazioa (irismena, ulermena...).

Gutxi gorabeherako egutegia



3. ATALA

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA



7. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-EREDUA

Ebaluazioa lan-prozesuaren eta plan baten ezarpenaren funtsezko zatia da. Mekanismo egokiak diseinatzea eta abian jartzea funtsezkoa da ekintza eta ildo estrategikoen egokitasuna eta antzemandako beharrizan eta interesekiko korrelazioa ezagutzeko. Horretarako, kontuan hartu behar dira dokumentu honetan oro har deskribatzen diren zenbait gai, eta komeniko da horiek abian jartzeko unean zehaztea.



Ebaluazio- eta jarraipen-ereduari buruzko galderak.

Iturria: geuk landua


- ZERTARAKO? Helburu nagusia da JIHPEaren bilakaera eta aplikazio-maila ezagutzea, bai eta lortutako emaitzak ere. Horien kalitatea bermatu nahi da, eta, jarraipenaren bidez, norabide egokian jarraitzea erraztu.
- ZER? JIHPEari buruzko alderdi guztiak berrikustea komeni da: bai prozesua, bai emaitzak eta bai betetze-maila orokorra.
- NOIZ? Prozesuari eta emaitzei dagokienez, urtero berrikustea gomendatzen da; betetze-mailarako, aldiz, hobea da etengabeko jarraipena egitea.
- NORK? Erantzukizuna Udalarena da, eta, zehazkiago, IHko Zerbitzuarena, nahiz eta lan hori Arloko arduradunekin lankidetza estuan egin daitekeen.
- NOLA? Ebaluatzeko askotariko tresna osagarriak dituen sistema diseinatu eta egituratu baten bidez. Sistema erraza izango da, informazioa hainbat iturriren bidez triangulatzean oinarritua eta udalerriaren testuingurura egokitua.

Gai horiek guztiak aintzat hartuta, JIHPEaren ebaluazio- eta jarraipen-eredu orokor bat proposatzen da, Plana behar bezala garatzeko egitura integral eta beharrezko gisa ulertua.

Jarraipena ezarpena etengabe kontrolatzera bideratzen da, ekintzen garapen-egoera ikusten laguntzen duen aginte-koadro baten bidez, barne-koordinazioa eta beste udal-arlo batzuekiko koordinazioa eta JIHPEaren jardunaren etengabeko hobekuntza erraztuz.

Paraleloki, ebaluazioak prozesua zein emaitzak aztertzen ditu, eta ekintzak gauzatzen diren modua eta lortutako emaitzak ikuspegi orokor batetik balioestea ahalbidetzen du. Baterako ikuspegia ematen digu, orain arte egindako urratsei eta egiteke dauden alderdiei buruz gogoeta egiteko aukera ematen duena.

Ebaluaziorako eta jarraipenerako adierazleak eta bitartekoak definitzeko, kontuan hartu da horiek errazak, argiak, erraz aplikatzeko modukoak eta esanguratsuak izatea, hau da, aurrera egin ahal izateko informazio baliotsua ematea.



JIHPEaren ebaluazio- eta jarraipen-sistemaren eskema

8. JARRAIPENA

JIHPEaren ekintzen jarraipen-eredua planifikatutako ekintzen gauzatzearen monitorizazio sistematikoan oinarritzen da, Exceleko aginte-koadro baten bidez (kontsultatu erantsitako dokumentua). Horrek aukera ematen digu ekintza bakoitzaren egoera argi eta modu antolatuan ikusteko denboran zehar, eta txostenak egitea eta udaleko beste arlo batzuekin koordinatzea errazten du.

Ekintza bakoitza bere zenbakiarekin eta deskribapenarekin erregistratzen da, bai eta adierazleekin ere, hala nola aurreikusitako gauzatze-data, egoera (hasi gabe, hasita, garatzen, finkatua edo amaitua) eta aurrekontua. Finkatzea geratzeko iristen diren eta plan osoan zehar indarrean dauden ekintzak direla ulertzen da, eta amaitzea, berriz, Plana indarrean dagoen bitartean hasi eta amaitzen diren ekintzak.

Ikuspegi horrek Planaren aurrerapenaren etengabeko ebaluazioa errazten du, desbideratzeak behar bezala identifikatzen ditu eta baliabideen kudeaketa gardena eta eraginkorra ziurtatzen du.

IE	Helburua	Ekintza	Plangintza	Egoera	Aurrekontua

		Zk. eta deskribapena		Aurreikusitako aldia	Hasi gabe	Hasita	Garatzen	Finkatua	Amaitua	

Ekintzen jarraipenerako aginte-koadroaren eredua

9. EMAITZEN EBALUAZIOA

Emaitzen ebaluazioak aurreko ataleko ekintza bakoitzaren jarraipen xehatua osatzen du, eta oro harreko ikuspegia ematen du, aurrerapen orokorrak baloratzeko aukera emanez, balio-irizpide eta adierazle batzuk kontuan hartuta.

Balio-irizpideak

Azterketa-kategoria nagusiei dagozkie ebaluazioan zehar, eta arreta funtsezko alderdietara bideratzen laguntzen dute, horietatik azaleratuko baitira adierazleak eta beharrezkoak diren tresna metodologikoak. Ebaluazioak erantzun nahi dien galdera orokorrak dira. Plan honetarako, honako hauek hautatu dira:

- Eraginkortasuna.
- Egokitasuna.
- Aniztasuna.
- Oreka.
- Estaldura.

Emaitzen adierazleak

JIHPEaren ikuspegi orokorra gal ez dadin, ILDO ESTRATEGIKOEN ETA HELBURUEN betetze-maila baloratzen duten ADIERAZLE multzo bat proposatzen da. Balio-irizpideak eta adierazleak urtero berrikustea proposatzen da, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

ERAGINKORTASUNA	Bloke honek JIHPEaren betetze-maila ebaluatzen du, planifikatuta dagoenarekin lotuta, eta ekintzak, helburuak eta ildo estrategikoak aurreikusitakoaren arabera garatzen ari diren aztertzen du. Planak plangintza emaitza zehatz bihurtzeko duen gaitasuna baloratzea ahalbidetzen du.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Urteko ekintzak	Irizpide hori JIHPEan aurreikusitako ekintzen gauzatze-mailari dagokio, eta urtean planifikatutako jarduerak benetan zein neurritan abian jarri edo finkatu diren baloratzen du. Urteko planaren betetze operatiboaren	Urtean zehar hasitako/garatutako/finkatutako/amaitutako ekintzen kopurua/Aldi bererako lehenetsitako ekintzen kopurua.

	maila identifikatzea ahalbidetzen du, bai eta aurreikusitakoaren eta gauzatutakoaren artean egon daitezkeen desbideratzeak detektatzea ere.	
Ekintzak guztira	Aurrekoaren antzeko adierazlea da, gauzatutako urteko ekintzak konparatzeko aukera ematen duena JIHPEko ekintza guztiei dagokienez. Urteko aurrerapenaren ideia orokor bat ematen digu.	Urtean zehar amaitutako/finkatutako ekintzen kopurua/JIHPEko ekintza kopurua guztira

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Epe laburreko helburuak	Plana ezarritako helburuetan aurrera egiten ari den eta ekintzak gauzatzearen eta helburu horiek lortzearen artean korrespondentzia eraginkorrik dagoen ebaluatzen du. Helburu finkatua da ekintza guztiak amaituta edo finkatuta dituena.	2026-2029 aldian finkatutako helburuen kopurua/planaren helburu guztien kopurua.
Helburuak guztira	Planak ezarritako helburuetan aurrera egin duen eta ekintzak gauzatzearen eta helburu horiek lortzearen artean korrespondentzia eraginkorra egon den ebaluatzen du.	2032an finkatutako helburuen kopurua/planaren helburu guztien kopurua.
Helburuen eta epe ertaineko IEaren arteko harremana	JIHPEaren ildo estrategiko bakoitzaren helburuen finkatze-mailari dagokio, IEak aurreikusitako helburuen eta epe ertainera finkatutako helburuen arteko konparazioa egiten du.	2026-29 aldian ildo estrategiko bakoitzaren finkatutako helburuen kopurua/ildo estrategiko bakoitzaren helburuen kopurua.
Helburuen-IE guztien arteko harremana	Aurreko adierazleak bezala, ildo estrategikoen arabera finkatutako helburuen bolumena aztertzen du, JIHPEaren helburu guztiekin alderatuta. Planaren hedapena homogeneoa izan den edo ezarpen-maila txikiagoa izan duten arloak egon diren aztertzeko aukera ematen du.	2032an ildo estrategiko bakoitzaren finkatutako helburuen kopurua/ildo estrategiko bakoitzaren helburuen kopurua.

ANIZTASUNA	Bloke honek JIHPEaren esparruan garatutako ekintzen aniztasuna eta aberastasuna aztertzen du, ikuspegien, tresnen eta tartean dauden kolektiboen irekitasuna kontuan hartuta.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA

Askotariko gaiak	Irizpide horrek adierazten du zein mailataraino betetzen dituzten ekintzek diagnostikoan identifikatutako askotariko ingurumen-gaiak, eremu bakar batean gehiegi kontzentratzea saihestuz eta modu integralean heltzen lagunduz.	Landutako ingurumen-lehentasunen kopurua/aurreikusitako lehentasunen kopurua
Lan-tresnen aniztasuna	Urteko plangintzari dagokionez, ekintzen garapenean metodologia eta tresna desberdinen (sentsibilizazioa, prestakuntza, parte-hartzea, kudeaketa, etab.) erabilera aztertzen du.	Tresna bakoitzari heltzen dioten landutako ekintzen kopurua/tresna horri heltzen zioten aurreikusitako ekintzen kopurua
Xede hartzaileen aniztasuna	JIHPEaren ekintzak hainbat biztanleria-talderi zuzenduta dauden ebaluatzen du, esku-hartze inklusiboa eta profil eta premia desberdinetara egokitua bermatuz.	Xede hartzailearen arabera landutako ekintzen kopurua/xede hartzailearen arabera aurreikusitako ekintzen kopurua

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Ekintzetan berdintasunaren eta intersekzionalitatearen ikuspegia sartzea	Irizpide horrek baloratzen du ekintzek berdintasuna sustatzen duten eta gizarte-aniztasuna kontuan hartzen duten ikuspegiak jasotzen dituzten, generoa, adina, jatorria edo parte-hartzean eta eskuratzean eragina duten beste aldagai batzuk kontuan hartuta.	Berdintasun-ikuspegiarekin garatutako ekintzen kopurua/garatutako ekintzen kopurua guztira

EGOKITASUNA	Bloke honek JIHPEa tokiko testuingurura egokitzen den maila ebaluatzen du, udalerriko ingurumen-premia, -arazo eta -lehentasunei modu koherentean erantzuten dien kontuan hartuta.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Ekintza Planean zehaztutako ingurumen-lehentasunen eta gauzatutako ekintzen arteko koherentzia	Irizpide honek garatutako ekintzak diagnostikoan eta ekintza-planean identifikatutako lehentasunekin bat datozen baloratzen du. JIHPEaren ezarpenak lurraldearen benetako beharrak konpontzera bideratutako barne-logika koherentea duen zehaztea ahalbidetzen du.	Udalaren ingurumen-lehentasunen eta garatutako ekintzen arteko koherentziaren azterketa

ESTALDURA	Bloke honek JIHPEaren irismena neurtzen du, biztanleria onuradunari dagokionez, eta planak herritarrengana iristeko eta udal-mailan inpaktua sortzeko duen gaitasuna aztertzeko aukera ematen du.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Ekintzen biztanle onuradunak, sexuaren arabera bereizita	Irizpide hau ekintzen irismenarekin lotutako dago biztanleriari dagokionez, zuzenean parte hartzen duten pertsonak eta zeharka onura jaso dezaketenak kontuan hartuta. Planaren	Onuradun zuzenak/onuradun izan daitezkeela uste den biztanleak

	hedapen- eta inpaktu-gaitasuna baloratzeko aukera ematen du.	
Biztanle onuradunak Iruñeko biztanleriaren guztizkoarekiko, sexuaren arabera bereizita	JIHPEak udalerri osoan duen sartze-maila aztertzen du, eta ekintzek irismen esanguratsua duten edo eragina biztanleriaren sektore txikietara mugatzen den ebaluatzen du.	Ekintzen biztanle onuradunak/udalerriko biztanleria osoa

OREKA	Aurrekoen emaitza jasotzen duen bigarren mailako adierazlea. Balorazio orokor kualitatiboa da, aurreko ataletan lortutako emaitzak biltzen dituena. JIHPEaren garapenaren ikuspegi sintetikoa eskaintzea du helburu, indarrak, ahuleziak eta balizko desorekak identifikatuz.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Oreka	Irizpide hori interpretazio-azterketa bati buruzkoa da, eta eraginkortasunaren, egokitasunaren, aniztasunaren eta estalduraren emaitzak konbinatzen ditu, eta JIHPEaren garapena koherentea, orekatua eta helburuekin bat egiten duena den identifikatzeko aukera ematen du. Erabakiak hartzea eta etengabeko hobekuntza errazten dituen irakurketa kritikoa jasotzen du.	Aurreko adierazleen azterketa.

10. PROZESUAREN EBALUAZIOA

JIHPEaren ebaluazio-eredua emaitzak neurtzera ez ezik, JIHPEaren ezarpenaren kalitatea eta egokitasuna baloratzera ere bideratutako sistema integral gisa ulertzen da. Prozesuaren ebaluazioak ahalbidetzen digu Plana garatzen ari den modua eta Planaren gobernantza-arkitektura bera berrikustea. Helburu nagusia da egiaztatzea zer neurritan ari diren urratsak egiten JIHPEa abian jartzeko, ikuspegi orokor batekin.

Horretarako, adierazle sorta bat jaso da, honako hauek aztertzeko: antolaketa-eredu orokorra, giza taldearen eta eskuragarri dauden baliabideen egokitasuna, berdintasunaren eta intersekzionalitatearen integrazioa, eta jarraipen-tresnen erabilera eta egokitzapena, JIHPEaren funtzionamenduaren ikuspegi orokorra lortu ahal izateko.

Prozesuaren adierazleak

ANTOLAKETA-EREDU OROKORRA	Bloke honek JIHPEa sostengatzen duen egitura orokorra ebaluatzen du, erabakiak hartzea, funtzioen banaketa eta kudeaketa-mailen artikulazioa antolatzeko modua barne. Helburu du zehaztea ea antolaketa-ereduak planaren helburu estrategikoekiko koherentea, efizientea eta lerrokatua den ezarpena errazten duen.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Gobernantza eredua JIHPEra egokitzea	Irizpide honek ebaluatzen du definitutako gobernantza-egitura (erabaki-organoak, rolak, erantzukizunak eta koordinazio-kanalak) koherentea den JIHPEaren helburuekin eta irismenarekin, eta aukera ematen du erabakiak eraginkortasunez, modu parte-hartzailean eta planaren lehentasun estrategikoekin bat eginda hartzeko.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA

Planaren kudeaketa-mailen betetzea: plangintza eta diseinua; koordinazioa eta kudeaketa; gauzatzea eta ebaluazioa	Planaren kudeaketa-zikloaren fase guztiak behar bezala ezartzeari dagokio, ekintzak planifikatzeko, koordinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prozesu bereiziak eta funtzionalak daudela ziurtatuz, eta maila horiek argi eta garbi definituta eta elkarri lotuta daudela bermatuz.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
JIHPEaren plangintzaren eta diseinuaren egokitasuna	Plana modu egituratuan formulatu den baloratzen du, helburu argiekin, ekintza koherenteekin eta beharren identifikazio egokiarekin, urteko garapen-fase bakoitzean bideragarritasuna eta egokitasuna bermatuz.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
JIHPEaren koordinazio eta kudeaketaren egokitasuna	Eragileen arteko koordinazio-mekanismoak eraginkorrak diren, erantzukizunen esleipen zuzena dagoen eta planaren kudeaketa operatiboak ekintzen ezarpen arina errazten duen aztertzen du.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
JIHPEaren ebaluazio-ereduaren egokitasuna	Irizpide horrek aztertzen du ea planak ebaluazio-sistema definiturik baduen, garatutako ekintzen emaitzak eta inpaktua neurtzea ahalbidetuko duten adierazle, tresna eta metodologiekin.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
JIHPEaren komunikazio-ereduren bat egotea	Plana barnean eta kanpoan hedatzea bermatuko duen, gardentasuna erraztuko duen eta eragileen eta herritarren parte-hartze aktiboa sustatuko duen komunikazio-estrategia egituratua egoteari dagokio.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)

GIZA LANTALDEA	Atal honek JIHPEaren garapenean inplikatutako giza baliabideak aztertzen ditu, eta haien egokitzapena, antolaketa eta gaikuntza ditu ardatz. Taldeak Plana modu eraginkor eta koordinatuan ezartzeko beharrezkoak diren baldintzak dituen egiaztatzea da xedea.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Giza lantaldearen egokitze-maila Planaren giza baliabideen beharrekiko	Planari esleitutako langileek aurreikusitako ekintzak eraginkortasunez garatzeko behar diren kopurua, profil profesionala eta gaitasunak dituzten ebaluatzen du.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
Lana zerbitzuen artean modu kolaboratiboan antolatzea	Arlo edo erakundeen arteko zeharkako lanaren eta lan koordinatuaren sustapen-maila aztertzen du, lankidetza erraztuz eta JIHPEa abian jartzean bikoiztasunak edo zatiketa saihestuz.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
JIHPEa garatzeko giza lantaldearen prestakuntza-jarduerak egotea	Inplikatutako taldeari zuzendutako prestakuntza-ekintzak aurreikusi eta gauzatu diren baloratzen du, haien gaitasunak hobetzeko eta JIHPEa behar bezala aplikatzen dela ziurtatzeko.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)

BALIABIDEAK	Bloke honek JIHPEa gauzatzeko erabilgarri dauden bitartekoetan jartzen du arreta, ekonomikoetan zein materialetan. Bideragarritasuna eta ezarpen egokia bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak ote dauden zehaztea du helburu.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Aurreikusitako ekintzei heltzeko behar adinako baliabide ekonomikoak izatea	Irizpide honek neurtzen du ea esleitutako aurrekontua egokia eta nahikoa den planifikatutako jarduerak gauzatzea bermatzeko, haien irismena edo kalitatea arriskuan jarri gabe.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
Urtero aukeratutako ekintzak gauzatzeko behar adina baliabide material izatea	JIHPEaren ekintzak eraginkortasunez garatzeko beharrezkoak diren azpiegitura, ekipamendu eta materialak egoteari eta horien irisgarritasunari dagokio.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)

BERDINTASUNA ETA INTERSEKZIONALITATEA	Atal honek JIHPEak ekitate-ikuspegiak zein mailatan txertatzen dituen ebaluatzen du, aurreikusitako ekintzek aukera-berdintasuna nahiz desberdintasuna sor dezaketen egoeren eta faktoreen aniztasuna kontuan hartzen dituztela ziurtatuz.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Planak jasotzen dituen ekintzen garapenean berdintasun-irizpideak sartzea.	JIHPEak berdintasunaren ikuspegia zeharka txertatzen duen ebaluatzen du, ekintzek desberdintasunak murrizten eta ekitatea sustatzen laguntzen dutela ziurtatuz.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
Planak jasotzen dituen ekintzen garapenean intersekzionalitate-irizpideak sartzea	Planak askotariko desberdintasun-faktoreen elkarreragina kontuan hartzen duen aztertzen du (generoa, adina, jatorria, desgaitasuna, etab.), eta aniztasunarekiko eta errealitate sozialekiko ekintza sentikorrak diseinatzen ditu.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)

JARRAIPEN-TRESNAK	Bloke honek JIHPEaren garapena monitorizatzeko ezarritako mekanismoak aztertzen ditu, eta horien aurrerapena ebaluatzea, desbideratzeak antzematea eta ezarpenean erabakiak hartzea erraztea ahalbidetzen du.	
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	NEURKETA
Ezarritako jarraipen-mekanismoen egokitasuna	Irizpide honek aztertzen du jarraipenerako zehaztutako tresnak (adierazleak, datuak biltzeko sistemak, kontrol-tresnak) egokiak, fidagarriak eta erabilgarriak diren planaren aurrerapena monitorizatzeko.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
Emaitzen eta prozesuen aldizkako jarraipena egitea	Lortutako emaitzak eta inplementazio-prozesuak sistematikoki eta erregulartasunez berrikusteari dagokio, eta desbideratzeak detektatzeko eta hobekuntzak aplikatzeko aukera ematen du.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
Aldizkako jarraipen-bilerak egitea	Planaren aurrerapena aztertzeko, informazioa partekatzeko eta doitzeko erabakiak hartzeko eragileen arteko topagune formalak ezartzen diren baloratzen du.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)
Lortutako emaitzen urteko txostena edo memoria egitea	JIHPEaren emaitzak urtero sistematizatzen diren aztertzen du, horien garapena ebaluatzea, kontuak ematea eta etorkizuneko jarduketak bideratzea ahalbidetuko duten txostenen edo memorien bidez.	Eskala kualitatiboa (0-hutsala, 1. baxua, 2-ertaina, 3-altua)

Ebaluazio-mekanismoak

Eredu hori urtero aplikatzea gomendatzen da, berrikusi beharreko alderdi nagusiak identifikatzen dituen egiaztapen-zerrenda baten bidez, ebaluazio sistematikoa, konparatiboa eta etengabeko hobekuntzara bideratua erraztuz.

Ebaluazioa arina izan dadin, eskala kualitatibo bat planteatu da, IHko Zerbitzuaren iritzi adituan oinarritua, eta irizpide bakoitza eskala honekin baloratuko du:

0 = Hutsala. Ez dago irizpidearen ebidentziarik.

1 = Baxua. Modu hasiberrian dago, ez sistematikoki edo behar adina.

2 = Ertaina. Modu egokian dago, hobetzeko tartea badagoen arren.

3= Altua. Erabat garatuta dago, sistematikoa da eta Planarekin lerrokatuta dago.

Balorazio hori osatzeko, azalpen-paragrafo bat gehitu daiteke, puntuazio jakin bat zergatik jarri den zehazteko. Azterketa horri esker, erabakiak errazago hartuko dira.

Adierazle horiek jarraipen-adierazleekin batera jaso dira jarraipen-taula batean, errazago erabiltzeko.